



Gezurren txoria

Msuswa P. Mabena & Dale Blankenaar

Euskaratzailea: Ibon Plazaola
Bilduma: Albuma (3 urtetik gora)

ISBN: 978-84-9868-910-5

Formatua: 247 x 250 mm.
Orrialdeak: 32
Koadernaketa: tapa gogorra

SALNEURRIA (BEZ gabe): 15,34 €

SALNEURRIA (BEZ barne): 15,95 €

ARGITALPEN DATA: 2024/11/06

UMOREA, FAMILIA, IRUDIMENA



KATALANEZKO EDIZIOA: Ediciones Ekaré

L'ocell de les mentides (978-84-128118-7-2)

GAZTELANIAZKOA EDIZIOA: Ediciones Ekaré

El pájaro de las mentiras (978-84-128118-6-5)

Sinopsia



Erne! Ipuin honetan txoritxo gezurtero bat bizi da, lagunak ezin konta ahala saltsatan sartzea ikaragarri gustatzen zaiona.

Album bikain hau, laster etxeetan ozen irakurtzeko gustokoen bilakatuko da, Gezurren txoriaren bihurrikeriak direla-eta.

Istoria hau bi hizkuntzatan idatzia da berez: ndebelera eta ingelesez. Egilea, Msuswa P. Mabena, Hegoafrikako Ndebele naziokoa da. Hego-Ndebele edo amaNdebele nazioa XII. mendean sortu zen, eta gaur egun bi milioi lagunek osatzen dute.

Denboraren joanean, amaNdebeletarrek aldaketa politiko, migrazio eta gerra ugari jasan dituzte, eta, azken bi mendeetan, haietako askok sorterritik ihes egin behar izan dute, boer kolono zurien, Britainiar Inperioaren eta apartheidaren ekintzen ondorioz.

Tentsioak tentsio, amaNdebeletarrek ahaleginak eta bi egin dituzte beren hizkuntzari, tradizioei eta arteadierazpenei eusteko. Horma-arteak ezagunenak bat. Emakumeak aritzen dira horretan, eta eraikin eta etxebizitzak dekoratzen dituzte patri geometriko ezin deigarriagoak erabiliz. Kolono zurien kontrako gerretan, artistek mezuak ezkatzen zituzten beren diseinuetan, etsaia ohartu gabe amaNdebeletarren sufrikarioen eta erresistentziaren berri emateko. Hori dela eta, Dale Blankenaar irudigileak amaNdebeletarren mundu grafikoa erabiltzea erabaki zuen *Gezurren txoria* irudikatzen: amaNdebeletar artistek beren mezuak ezkatzen zituzten bezala, hemen ere forma geometrikoek sekretuak sinbolizatzen dituzte.

Egileez

MSUSWA P. MABENA (Bronkhorstspuit, Hegoafrika. 1963) Ndebelera irakasten du Hegoafrikako Unibertsitatean. Mpumalanga gobernuarentzat aritu zen lanean irakasle eta hizkuntza-aholkulari gisa. Biblia itzuli du ndebelera, eta helduentzako hainbat liburu argitaratu dizkiote.

DALE BLANKENAAR (Lurmutur Hiria, Hegoafrika. 1985) Diseinu Grafikoa ikasi zuen Lurmutur Hiriko CPUTn, eta Irudigintzan espezializatu zen. Haren lanak hamar herrialdetan erakutsi dituzte, tartean baita Boloniako Liburu Azokako Irudigileen Erakusketan ere. Nami Concours-en barruan ematen den Golden Island saria jaso zuen, eta Kate Greenaway Dominarako izendatu zuten.